



HODEI TRUK ABESBATZA SARIAREKIN ETXERA

Torreviejan izandako lehiaketan hirugarren postua lortu du Tolosako gaztetxoek koruak, iragan asteburuan >5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-04-29

VIIURTEA 1.688.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo sinatu zuten hitzarmena Hizkuntz Eskubideen Behatokiak eta Galtzaundi Euskara Taldeak, Ibarra. R. CALVO

'EUSKARAREN TELEFONOA' MARTXAN GAURTIK AURRERA

EUSKARA Ibarra, Tolosa eta Villabonan abiarazi dute ekimena Behatokiak eta Galtzaundik, «euskararen urraketak konpontzeko» 6

Castroren salaketa ez dela «sinesgarria» esan du Entzutegi Nazionalak

VILLABONA Epailaren aginduz ez dira zabalduko inkomunikazio garaiko bideoak 7



I. GARCIA

LEIRE OLABERRIA TXIRRINDULARIA

«Txirrindularitza nire pasioa da, guztiz engantxatu nau» 2-3

Ikasle Abertzaleek grebara deitu dituzte bihar, ikasle guztiak

LEITZA Euskal Eskola Nazionalaren alde hainbat ekimen burutuko dituzte Euskal Herri osoan 4

Hirukide
Elkarrekin
Zerbitzuak
www.hirukide.org

Berlingo
Zerbitzuak eta Taldeak
Gizarte eta Garapen Berria
Gizartearen Erakundeak
eta gehiago...
Berlingo-Studio

TXOKOA hitza

sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pareta** du

Bruasa GBC Ricoh Manresa

Donostiako Illunben
Apirilak 30, Osteguna • 20:00etan

sarrerak eskuratzeko deitu goizez:
943-65 56 95
harpidedun kodea eskura duzula
jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu.

E Elkarrizketa digitala **LEIRE OLABERRIA** › Txirrindularia**Ikaztegieta** ›

Bere ibilbideaz, egungo lanbideaz, zaletasunez, garaipenez... aritu da txirrindulari profesionala zuzenean HITZAren irakurleekin.

ERREDAKZIOA

Etxetik gertu izaten ari den egonaldia aprobetxatuz Leire Olaberriak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN irakurleen galderak erantzun zituen herenegun, elkarrizketa digitalean. «Oso gustura» dago Ikaztegietakoa bere lanbidearekin, batzuetan etxetik kanpora hainbeste denbora egitea «gogorra» egiten zaion arren.

Kaixo Leire! Londresko Olinpiar Jokoetan aritzeko asmoa baduzu? Eskerrik asko (Eider)

Kaixo! Bai noski, asmorik ez zait falta... baina oraindik 3 urte luze gelditzen dira eta denbora asko dago Londresen pentsatzen hasteko. Horrexegatik, oraingoz, beste erronkak ditut buruan.

Ikaztegieta omenaldia egin zizutzen. Nola sentitu zinen?

Egia esan oso omenaldi polita izan zen, lagunak eta herritarrek beren intentzio onenarekin prestatua eta hori polita da oso. Memento hoieta jabetzen zara, zuk egindakoa zenbat jenderengana iritsi den.

Berandu xamar hasi zinen bizikletarekin. Nolatan hartu zenuen erabaki hori?

Askotan egin didaten galdera da hori eta nahiz eta askotan errepikatu, ba, ilusio falta izan zen atletismoa uztera biltzatu ninduen eta ilusio horren bila nabilela pistako txirrinda baten gainean amaitu nuen.

Epa Leire! Zorionak lortutako guztiarengatik. Iruditzen zait Olinpiar Jokoetan lortutakoa baino lehenagoko ibilbide handiari ez zaiola behar bezalako garrantzia eman. Ezin da ahaztu lan handi horri esker ailegatu zinel Pekinera, ezta? Nola ikusten duzu? Pekin baino lehenagoko lana errekonozituta ikusi duzu beti? Eskerrik asko eta segi horrela! (Lore)



L. GARCIA

«Txirrinda nire pasioa da, guztiz engantxatu nau»

H Hilberria**IGNACIO ARTANO SAGASTUME**

JAUNA

Atzo hil zen, 82 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-



Igo nazazu nire mendira aurki dezadan bidea askatu nadin zure loturaz behar dezadan airea

Zure ilobak



TOLOSA
2009ko
apirilaren 29a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Egia esan, nik ez diot garrantzi gehiegi eman nik egindako lana errekonozitzen den ala ez. Nire ilusio eta gogo guztiekin egindako ibilbidea izan da eta nire barruan nabari nuen hutsune bat betetzen lagundu dit, ez dit gehiegi axola

Omenaldia oso polita izan zen; zuk egindakoa zenbat jenderengana iritsi den jabetzen zara

Ilusio faltak atletismoa uztera bultzatu ninduen eta pistako txirrinda gainean amaitu nuen

Nire lanak neure barruan nabari nuen hutsune bat betetzen lagundu dit, hori da garrantzitsua

jendeak errekonozitzen duen ala ez... baina egia da Pekineko emaitzak errekonozimendu handia izan duela, nire ustez eta kirolari moduan oso polita izan da bizitako guztia... nik nire ibilbidea ahalik eta hobekien egiten saiatuko naiz inoren errekonozimendurik espero gabe...

Zorionak Leire. Pekinen esperientzia izugarria bizituko zenuen, konta ezazu anekdotaren bat. (Mikel)

Anekdotak asko izan ziren eta bat aipatzekotan, Komite Olinpikoak emandako arropa guztiaren artean, bazen arropa berezi bat (kolore txurikoa) podiumera igotzeko jantzi behar genuena. Lehiaketa egunean, nire gelatik irtetean, gure fisioterapeuta etorri zitzaidan bila, eta erropa hartzearena gogorarazi zidan eta nik zera esan nion: nola hartuko dut ba podiumeko erropa! zuk ez dakizu zein zaila izango den gaur podiumera igotzea?... berak hartu zidan bere motxilan txandala txuria... eta eskerrak! ze bestela... hauxe da nire anekdotetako bat, baina nireak baino politago lagunek bizitako anekdotak piloa iruditzen zaizkit.

Kaixo Leire. Handia izan zen Olinpiar Jokoetan lortutakoa. Zein txapelketa ari zara prestatzen orain?Ea zortea duzun! (Herriar bat)

Momentuz oporrak izan ditut Munduko Txapelketa eta gero, eta orain, udan pistako lehiaketa gutxi ditugu zeren pistako denboraldia urrian hasiko dugu, bitartean errepidean arituko naiz, zeren eta gero pistan ondo aritzeko oinarritzko lana da. Eta noski, ea zorteak laguntzen gaituen, zeren gauza asko lortzeko ezinbestekoa da.

Emakume izateak zaildu egiten al dizu profesionalen mailan aritzea? Mila esker (Leire)

Gauza da emakumeen txirrindularitza hemen ez dagoela aukera gehiegirik profesional izateko baina nire kasuan, zorte handia izan genuen Cespa izeneko enpresaren

babesa jasoen genuenen dela 3 edo 4 urte, beraien babesean eta Eusko Jaurlaritzak lagunduta profesional izateko aukera izan dugu. Pistan, Euskal Herri mailan lehendabiziko aldia da profesional izateko aukera hau. Beraz, zorioneko sentitu behar gara leire pentsatzen dut, bai nik eta bai nire taldekideek.

lepa Leire. Nolatan sartu zinen kirol munduan? Korrika ala txirrindua nahiago?

Txirrinda da une honetan nire pasiorik handiena guztiz «engantxatu» bainau. Baina uste dut korrikak ere ezagutu handia eman didala eta asko zor didala.

Jendeak kaletik zer esaten dizu? (Idoia)

Denetarik esan didate baina agian, politena edo gehien iritsi zaidana, egun horretan jende askok egin zuela negar nirekin. Inoiz ez zitzaidan gertatu pozez negar egitea, baina une hartan, ni, ez nintzen jabetzen jendeak hura ikus zezakeenik eta emozioz gainezka egin nuen... eta ezin negarri eutsi!

Espainiak koloreekin konpetitza ez al zaizu arraroa egiten? (Jone)

Egia esan, guretzat momentuz Olinpiar Jokoetan egoteko aukera bakarra da Espainiak koloreak defendatzea. Munduko Txapelketetan egoteko ere, aukera bakarra Espainiak selekzioarekin aritzea da... Honetaz gain Munduko Kopan aritzen garenean hortxe darabagu Euskadiko publizitatea munduko txoko guztietara eta Euskadiko selekzioarekin ere deitutako bakoitzean hor izaten naiz, beraz, ni momentuz behintzat profesionala naiz, eta pedalei eragitea da nire lana da. Batzutan mailot batekin, besteetan beste batekin eta ni nire lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen naiz, besterik gabe. Gauzak aldatu ezean, horixe da gure errealitatea.

Nolakoak dira zure gustu pertsonalak: irakurri duzun azken liburua, gustukoan duzun filma, hobbyak? (Ines)



N. URIBIZU

Irakurtzea oso gustuko dut eta bidaizten denbora asko igarotzen dugunez denbora asko izaten dut irakurtzeko. Une honetan irakurtzen ari naizen liburua *Cometas en el cielo* da. Zinea ere gustuko dut eta edozein motatako pelikulak ikus ditzaket. Eta etxetik kanpo denbora asko egoten naizenez, familiarekin egotea oso gustoko izaten det.

Eguerdian! Badakit oso goiz dela gauza horietan pentsatzeko, baina txirrindularitza ez da kirolaz betirako bizitzea ez da erraza. Pentsatu duzu zertaz bizi geroan? Eskerrik asko (Marian)

Etorkizunak oraingoz ez nau gehiegi kezkatzen, magisteritza eta turismoan diplomatu naiz, eta agian horietako batean egon daiteke etorkizuna, baina egia esan, edozein aukera interesgarri irekita nago... denborak esango du.

Irakaslea ere bazara. Noizbait lan egin duzu irakasle bezala? Ez bazara aritu, probatuko zenuke? Eskerrik asko (tokaia)

Praktikak bakarrik egin ditut irakasle moduan, Ikaztegiatiko Herri Eskolan, gainera. Oso gustura egon nintzen, bai ikasleak bai eta irakasleak oso jatorrak direlako. Etorkizun batean egon daiteke irakaskuntza nire lekua, baina oraindik ez dut horretan gehiegi pentsatzen.

Bat Basque Team delakoa, zertan datza?

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako fundazio bat da. Non bertan gauden kirolariok soldata bat dugu hitlean eta lortutako emaitza onenagatik primak lortzen ditugu. Honez gain, laguntza desberdinak ditugu: Gure etorkizuna prestatzeko asesoratan gaituzte, psikologo laguntza dugu zeren eta goi mailako kirolariontzat, burua, herraminta oso garrantzitsua da, aseguru mediku bat ere badugu IMQrekin... beraz, eliteko kirolariok izan ditzakegun gabeziak betetzen saiatzen dira. Pekinera bidetan sortutako fundazioa izan da

eta Londresera iristeko euskal kirolariontzat funtsezkoa izan daiteke.

Noiz arte ikusten duzu zure burua txirrindularitza?

Gauzak ondo badoaz, Londres arte hortxe izango naiz, jo eta su.

Oso hunkigarria izan da entzutea egun horretan jende askok egin zuela negar nirekin

Munduko Kopan Euskadiko publizitatea munduko txoko guztietara zabaltzen dugu

Arau batzuen barruan mugitu behar dugu, eta arauak hausten dituenak ezagutzen ditu ondorioak

Eta Londres oostean, ikusiko dugu gogorik gelditzen zaidan, fisikoki eta psikologikoki ea nola aurkitzen naizen eta horren arabera, erabakirik hartuko ditut.

Zenbat urte bete arte aritzen zarete goi mailako konpetizioan? Eta ordutik aurrera? (Inazio)

Denetik dago, nire espezialitatean, hau da puntuazioan, badirabatzuk 35 eta 40 urte dituztenak eta, aldi berean, 18 eta 25 urtean dabilzanak. Maila ona ematen ari bazara, jarrai dezakezu. Baina mundu mailan onenekin aritzeko, zure herrialdeko onena izan behar duzu. Beraz, atzetik datoztenak irabazten dituztenean, gaztetxoek lekua uzteko garai izan daiteke. Eta kirol ibilbidea amaitzen denean, ba lanera, mundu guztia bezala!

Parrandarako tarterik geratzen al zaizu hainbeste entrenamenduenkin? (Eneritz)

Gogor entrenatzen zaudenean ez duzu gogorik izaten parrandako, zeren, eta gauean lehortuta izaten zara. Baina oporretan naizenean edo garaipenen bat ospatzen dugunean gustura egiten ditut nire parrandatxoak ere...

Ikaztegiatan egoteko aukera asko daukazu? Bestela non bizi zara? Eskerrik asko! (Gorka)

Ikaztegiatan ahal dudan guztietan izaten naiz. Bizi oraintxe arte Donostian bizi izan naiz, baina duela gutxitik hona Astigarragan bizi naiz.

Txirrindulariei 'kaña' handia ematen zaie dopinarekin. Zuk nola ikusten duzu hori? Aupa Leire! (Lore)

Egia da beste kirol batzuekin konparatuz kaña asko ematen ari direla txirrindulariei. Egia da, baita ere, positibo kasu asko eman direla eta gure sinesgarritasuna berreskuratzeko zerbait egin beharra dela. Gu arau batzuen barruan mugitu behar gara, eta arauak hausten dituenak ezagutzen ditu ondorioak. Hori dela eta, egun, UCIak gure mugimendu guztiak kontrolatzen

ditu, edozein momentutan azaldu daitezke gure etxean, eta horretarako, egunero non egon behar garen informatu behar diegu. Etxetik kanpo egunen bat lo egin behar badugu ere, esan egin beharra daukagu non gauden. Pentsatzen jartzen bazara, kondizioak pixka bat gogorrrak dira, nire ustez, baina honekin jokoz kanpo dabilzanak harrapatzen badira, onartu egin beharko ditugu neurriak. Era guztietara, beste kirolak ere berdin neurtzea, eskergarri litzateke guretzat. Zeren eta momentuz, gauzak dauden bezala, ez dirudi justua denik.

Kaixo Leire! Irakurtzen ari naiz zure elkarrizketa lanetik... Eta orain gobernu aldaketarekin Basque Team-ena kolokan ikusten al duzu? (Aitor)

Badirudi gobernu aldaketarekin Basque Teamena airean gelditzea. Momentuz, urte honi dagozkion kontratuak firmatu ditugu ea etorkizun bakoitzean gauzak argitzen diren. Nik uste, proiektua ona dela eta jarraitu behar lukeela.

Jarraitzen al duzu txirrindularitza? Zer iruditzen zaizu Armstrongen buelta? Zein da zuretzat une honetan txirrindulari onena? (Iñigo)

Askok jarraitzen dut txirrindularitza, oso gustuko baitut. Armstrongen buelta, positibo iruditzen zait oso, alde batetik medio aldetik publizitate handia ematen zaiolako txirrindularitza eta bestalde, bere adinean, goi mailan aritu nahi izatea oso ausarta iruditzen zait. Momentuko txirrindulari onena itzulietarako Contador iruditzen zait. Eta egun bateko karreterarako beste izen asko egon daitezke: Rebellin, Boonen, Cavendish, Samuel Sanchez, Valverde... Karrera motaren arabera batzuk edo besteak dira egokiagoak.

Bizitzeko lain ematen al dizu bizikleta gainean ibiltzeak? Pentsatzen dut lortu duzuna lortu bitartean, urte gogorak pasa behar izango zenuela. Animo Leire! (Miren)

Lortutako emaitzak ondo bizitzeko aukera ematen dit, baina hau lortu bitartean, beste edozein pertsonak lan batekin lortzen duenarekin bizitu naiz. Beti asko baloratu izan dut, gustuko lana egitea eta ni zorioneko sentitu izan naiz gustuko dudana egin ahal nuelako.

Noiz egin zenuen azkeneko parranda? Eta egin duzun parrandarik onena zein izan da? (je, je...)

Azken parranda... je, je... Lazkaon amaitu genuen lagunekin Ikaztegiatiko omenaldia eta gero... Eta parranda onena... uff... Askok izan dira onak, batekin gelditzea oso zaila gertatzen zait.

Zer da zure profesioaren gogorrena? Mila esker guapa! (Idoia)

Batzuetan gogorra egiten da etxetik kanpo hainbeste denbora egotea... bainamomentuz, gustura egiten dut dena, sufrimendurekin «disfrutatzen» duen masaka horietakoa bainaiz, je, je...

Aspe eta Asegarcce dira esku pilota enpresa ospetsuenak, nahiz eta ez izan bakarrak. Ibai Bengoetxea leitzarra Frontisekin aritzen da. Iragan igandean Gipuzkoako Irekian bigarren gelditu zen Gorritirekin batera.

Pilotaren gerizpean

ASIER IMAZ


Ibai Bengoetxea alde batetik Frontis enpresarekin pilotari profesionala da: Bengoetxea VII.a. Bestalde, magisteritza ikasketak amaitu ostean irakaslea ere bada. Denbora librean bi lanbide hauek uztartzen ditu pilota irakasleak: «Oinatz lehengusuarekin ibiltzen naiz txandaka Aurrera Pilota Eskolako haurrekin».

Gipuzkoako Irekiaren Finala

Pilota partidak ez dira beti 22. tanton amaitzen, ez behintzat Frontisek antolatutako lehietan. Hauek jokoak kontatzen dituzte. Partida irabazteko bi joko irabazi behar dira eta joko bat irabazteko 10 tanto egin behar izaten dira.

Tanto kontaketa metodo honen inguruan zera dio Bengoetxea VII.ak: «Haseratik dena eman behar izaten duzu. 5-0 galtzen jartzen baldin bazara joko hori irabaztea oso zaila da. Alderantziz, joko bat 10-0 irabazten baldin baduzu gero berriro zerotik hasten zara; nahiz eta aurkariak baino tanto gehiago egin, partida galtzea daukazu beraz».

Gipuzkoako Irekiaren Finalan, iragan igandean, Antzuolan ez zen horrelakorik gertatu. Antxia-Larremendik bi joko irabazteaz gain tanto gehiago egin zituzten. Bengoetxea VII.-Gorritik ondorioz finala galdu egin zuten. Leitzako aurrelaria ez zen gustura geratu egin dako lanarekin: «Oso gaizki ibili



Ibai Bengoetxea, Bengoetxea VII.a, Aurrerako gaztetxoekin. A. IMAZ

nintzen, tanto gutxi egin nituen eta huts asko. Final erdietan, Lazkaon, oso partida ona jokatu nuen baina finalera gogotsu joanagatik galtzea tokatu zitzaigun. Gorritirekin hiru final jokatu ditut eta hirurak galdu, azken hau berarekin irabazteko gogo handia nuen».

Lehengusuak aurten zer?

Txapeldunaren inguruan hitz egin hasita, Ibai Bengoetxeak Oinatz aukerak ikusten dizkio: «Denak kontuan eduki beharra dute aurtengoan, txapelduna baita. Bat irabaztea lortu duenak bi ere irabaz ditzazke, nahiz eta oso zaila izan».



Ikasle Abertzaleek grebara deitu dituzte Institutuko ikasleak

Leitza » «Euskal Eskola Nazionalaren alde» egiteko deitu dute biharko ekimena, Euskal Herria mailan.

A. IMAZ

Leitzako Ikasle Abertzaleak taldeak bihar grebara deitu ditu Amazabal Institutuko ikasleak. Euskal Herriko txoko ezberdinetan ikasleak kalera irtengo direla aipatu dute leitzarrek, IAK nazio mailan egin duen deialdia izaki.

Biharko grebaren zergatiak

Leitzako IATik biharko grebaren zergatiak bi helbururen baitan kokatu dituzte: «Batetik, egungo hezkuntza sistema, ikasle dekretuak, curriculum arrotzak, greba esku-bidearen urraketa, testu liburu arrotzak, jai egun arrotzak, Bologna eta bestelako inposaketekin ados ez gaudela erakutsi nahi

dugu. Bestetik, helburu hauek aldarrikatu nahi ditugu: euskal curriculum, hezkuntza hezkidetzaila, bestelako unibertsitate eredu bat, eskubide demokratikoak, egutegi propioa eta batez ere, Euskal Eskola Nazionalaren aldeko apustua egin nahi dugu».

Klaserik ez baina jairik ere ez Euskal Eskola Nazionala helburu, egunegun denon artean egindako lana beharrezkoa dela iritzita, IAK ekitaldiz beteriko greba-egitaraua aurkeztu du.

» GREBA-EGITARAUA

Hilak 30, bihar

- **10:15ean.** Eskolako patioan konzentrazioa burutuko da.
- **Ondoren.** Herrian zehar manifestazio animatua.
- **Jarraian.** Herriko plazan joku batzuk burutuko dira.
- **Bukatzeo.** Ekitaldi xume bat egingo da.



harpidedun izateak badu saria

① 2 lagunentzako otordua

Iriarte Jatetxean

Joxe Mari Goikoetxea, 34
Berrobi • Tel.: 943-683 078



② antzerkirako 2 sarrera

Ate joka antzezlan

Maiatzak 9 • Larunbata
20:30ean • Tolosako Leidorren



③ zinerako 2 bonu

Tolosako Leidorren
maiatzean eskainiko den
edozein filmerako



④ arabar errioxako 2 ardo kaxa

Ezkerro edariak banatzaileak
eskainitako ardo botilekin



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea eskura duzula]
Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

'Euskararen telefonoa' abiarazi dute Ibarra, Villabonan eta Tolosan



Galtzaundiko zuzendaritzako kide den Jon Ander Ubeda eta Behatokiako Paul Bilbao sinatu zuten akordioa. R. CALVO

Euskara » Herritarrek gaur goizetik bertatik utzi ditzazkete euskararen erabilpenarekin zerikusia duten kexak postontzietan.

REBEKA CALVO

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak eta Galtzaundi Euskara Taldeak atzo Ibarra Kultur Etxean sinatutako hitzarmenari esker *Euskararen telefonoa* zerbitzua jarri dute abian Ibarra, Tolosa eta Villabona herrietan jarritako postontziei esker.

Helburua «herritarrek *Euskararen telefonoaren* erabiltzaile bihurtzea» da, hartara «euskaldunen hizkuntza-erabileraren urraketek konponbidea» eman ahal izateko, argitu zuen Behatokiako zuzendari Paul Bilbaok. Jarritako postontzietan euskararen erabilpenari buruzko kexak egin daitezke, argibideak eskatu edota jokabide ereduak txalotu.

UEMATik kanpoko herriak

Galtzaundirekin sinatutako hitzarmenari esker Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) kanpo dauden herrietan ere administrazioei eta erakunde-ek kexak edo zoriontzeak helarazteko modua egongo da, hortaz, gaurtik aurrera.

Galtzaundi Euskara Taldeko zuzendaritza kideetako batek, Jon Ander Ubedak, zentzu honetan, «hizkuntza-erabileraren urraketek erantzun nahian, Galtzaundik eskualdean lanean aritzen diren beste euskalgintzako erakundeekin batera, kexak jartzeko ekimenari indarra eman nahi dio», esan zuen.

Paul Bilbaok azaldukoaren arabera, herritarren Tolosako eta Ibarra Kultur Etxean eta Villabonako Liburutegietan kexa eta iradokizunak betetzeko postontziak aurkituko dituzte. Horiek denak Galtzaundik bideratuko dizkio Behatokiari eta honek, bere aldetik, «protokolo zorrotza» jarriko

espedienteak jarraituko duen prozeduraren berri ematen zaio, bai eta kexa edo zoriontze-izaerarik aitortu ez bazaio ere».

Konfidentzialtasuna

Era berean, aipatu behar da Behatokiak ez duela kexa anonimorik jasotzen, baina konfidentzialtasun osoz jokatzeko dute eta ez dute inoiz herritarren daturik zabalitzen, ez eta erakundeak edo administrazioak berriaz eskatuta ere. «Oso gertaera larria izanez gero eta Behatokiak bide judizialari eusteko asmoa badu, herritarren baimen idatzia eskatzen du», argitu zuen Behatokiako zuzendaria.

Herritarrek, gainera, espedienteak jarraituko duen prozeduraren berri ematen diote, bai eta kexa edo zoriontze-izaerarik aitortu ez badiote ere.

Txostena

Bestalde, Bilbaok jasotako urraketa guztiak urtero *Hizkuntza-erabileraren egoera Euskal Herrian* izeneko txostena argitaratzen dutela esan zuen: «Bertan egoeraren beltzune nagusienak biltzen ditu eta Euskal Herriko administrazioei aurkezten diegu aurreragoko jardunean herritarren hizkuntza-erabileraren urraketak horiek guztiak kontuan har ditzaten».

Postontzietan hizkuntza-erabileraren urraketak edo dena delakoaren berri eman nahi dutenek hauen ondoan bete beharreko inprimakiak aurkituko dituzte eta laguntza behar izanez gero udal langileei eskatu ahal diote.

Bestetik, kexa edo iradokizunak telefonoz ere egin daitezke: UEMAKo bulegoan (943 26 03 72), Galtzaundi Euskara Taldeko bulegoan (943 65 50 04) edo Behatokiaren *Euskararen telefonoa* deituta (902 194 332).

Egialdeko bidea oinezkoentzat egokituko du Udalak

Ibarra » Eremua jabetza pribatuko den arren, bere erabilpena publikoa delako konponduko dute bidea.

ERREDAKZIOA

Ibarra Udalak Egialdeko bidea oinezkoentzat egokituko lanak hasiko ditu laister gaur egungo trafikoa astunak eragiten dituen arrisku egoerak ekiditzeko asmoz.

Lanak Leaburuko bideko sarrean hasiko dira eta San Jose eremuan amaitzen den tarteari eragingo dio. Udalak esandakoaren arabera, azken zati horrek erabilera publikoa duen arren, jabetza pribatuko da.

Udalak, era berean, Udalbatzak etengabeko kexak jaso dituela esan du etxebizitzetako jabeen aldetik, izan ere bide honetik ibilgailu kopuru handia igarotzen da.

Behin zerbitzu juridikoak kontsultatu ondoren, Udalak bide hau oinezkoentzat egokituko erabakia hartu zuen bizilagunen eskarrei erantzunez. Horrela, Egialdeko oinezko eta bizikleten erabilera-erakundeak bakarriz izango da.

Baserrietako ibilgailuak

Hala eta guztiz ere, bidetik gertu aurkitzen diren baserrietako ibilgailuei ere bertatik igarotzeko aukera emango zaie. Erabilera alda-keta hau dagozkoan piboteen eta elementu adierazgailuen bidez ohartaraziko da.

Laburrak

Haur Eskolan izena emateko epea

ELDUAIN » Elduaingo Haur Eskola Publikoak 2009ko iraila eta urria matrikulazio epea zabalduko du maiatzaren 4an. Haurrak matrikulatzeko epea, hortaz, 4an hasiko da eta maiatzaren 15a arte iraungo du, biak barne. Haur Eskolaren ordutegia 07:30etik 18:30era da, hala ere, haur bakoitzak gehienez 8 ordu egon behar du bertan. Informazio gehiagorako deitu 943 68 35 89ra.

Festa Batzordearen bilkura, gaur 20:00etan

IBARRA » Ibarra Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak, San Bartolome jaien antolaketari ekin asmoz, Festa Batzordearen bilera antolatu du gaurko, 20:00etan Udal Pleno Aretoan. Batzordeko kideek herritar guztiak animatu eta gonbidatu nahi dituzte bilkuran parte hartzera.



Hirugarren irteera, «familiarrean»

IBARRA » Langostino Moto Kultur Elkarteak urteko hirugarren irteera egin zuten igandean. Eurria eta hotza egin zuen eta behar bada horregatik ez ziren motorzale gehiegi animatu. 14 lagunek hartu zuten parte eta «familiarrean» egin zuten ibilbidea. Datorren irteera asteburu osokoa izango da maiatzaren 30 eta 31ean Acedoko campingeran (Nafarroa). HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



L. GARCIA

«Hezkuntzari begirada berri bat da pedagogia sistemikoa»

BEVERLY RUPA RODRIGUEZ › Pedagogo sistemikoa

IMANOL GARCIA

Beverly Rupa Rodriguez (La Figuera, Espainia, 1958) Legazpira (Gipuzkoa) joan zen bost urte zituela. Magisteritza ikasi zuen Bartzelonan eta ondoren Mexikon izan zen antropologia eta kultura indigenen inguruan ikasten eta beste bederatzita urte Indian formakuntzajaso. 20 urte darmatzalanearan garapen pertsonalaren eta kontzientzia garapenaren inguruan. Pedagogia sistemikoa garatzen eta aplikatzen dabil ikastetxeetan zein familia mailan, eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan pedagogia sistemikoa ikertzen duen taldeko kidea da ere. Gaur pedagogia mota horri buruzko hitzaldia emango du Tolosan dagoen Nura Gizarte Elkartearen (San Frantzisko, 47), 19:00etan.

Zer da pedagogia sistemikoa?

Bert Hellingerren begirada aplikatzea hezkuntzan, irakatsi-ikasi prozesuan. Prozesu hori bizitza guztian zehar ematen da eta ez du soilik eskolarekin zerikusia. Jendeak oraindik pentsatzen du prozesu hori zerbait akademikoa dela, baina bizitza bera da ikasketa iraunkor bat. Ikusten dut gizartea hobetzeko dugun aukera bakarra hezkuntzaren bitartez dela.

Sistema ezberdinez hitz egiten da pedagogia mota horretan.

Pedagogia sistemikoak azaltzen duenez, prozesu horretan guztian hainbat sistema jartzen dira harremanetan uneoro. Oinarriko sistema familia da. Bizitza guztian zehar irauten duena da. Eskolaz edo lanbidez aldatu dezakezu, baina pertsona bakoitza familia batean jaiotzen da eta hori ezin da aldatu. Irakatsi-ikasi prozesuan sortzen diren harreman horietan, pedadogia honek alde afektiboari arreta jartzen dio eta ez bakarrik alde akademiko eta adimenarenari.

Nola ikusten duzu familiaren eta eskolaren arteko harremana?

Familiaren eta eskolaren arteko harremanari begiratzen badiogu historian zehar, ikusiko dugu XX. mendearen hasieran ez zirela haur asko joaten eskolara. Mendearen erdialdera hasi zen guztientzako hezkuntza zabaltzen. Momentu horri begiratzen badiogu, eskolak zuten boterea, eskolak zuten arazoia. Gero etorri ziren askatasun garaiak eta hori hasi zen eskolaren botere horri aurre egiten, hezkuntza askatasuna aldarrikatuz. Eta orain gurasoak doaz eskolara eta irakasleak zalantzan jartzen dituzte. Gaur egun familiak eta eskolak botere-borroka dute beraien arteak.

Eta horren aurrean zer egin?

Liskar honetan inor ez da ari hurrari begira, ez ditugu indarrak bateratzen hurrari begiratzeko. Bestalde, ikusten da irakasleek asko epaitzen dituztela gurasoak. Horrez gain, bi gurasoek lanean egotea beharrezkoa dute eta etxetik kanpo denbora asko egoten dira eta haurrak ez du behar adina arretaizaten. Beraz, kaosune batean gaude eta ezin dugu jarraitu gauzak begiratzen begirada zahar batekin. Pedagogia sistemikoa ez da teknika bat, ez da metodo bat, baizik hezkuntzari beste modu batera begiratzeko, beste begirada berri bat izateko proposamena da.

Nola kokatzen da hor haurra?

Ordena bat dago eta haurra hazi daiteke eta ikasi dezake armonia batean, bakoitzak bere lekua hartzen duenean berari dagokion sisteman. Haurrek eta gazteek ikasten dute hezkuntza ematen den testuinguru ordenatuta dagoenean eta gurasoek eta irakasleek konfiantza eta elkarrenganako errespetuan oinarrituta dagoen taldea osatzen dutenean.

Entzutegi Nazionalak dio ez dela «sinesgarria» Castroren salaketa

Villabona » Inkomunikazio epean Castrok torturak salatu zituen; epailearen aginduz ez dira zabalduko atxiloteta garaiko bideoak.

ERRREDAKZIOA

Entzutegi Nazionaleko Eloy Velascoren ustez Manex Castro gazte billabonabatarrak salatutako torturak ez dira «sinesgarriak». Hau dela eta, epaileak ez du Erantzaintzak inkomunikazio epean grabatutako bideoaren kopiarik emango.

Horiek horrela, Entzutegi Nazionalaren ustez Ertzaintzak «arduraz» jokatu zuen Castro atxilotu

eta inkomunikatuta eduki zuten egunetan. Entzutegiaren epaileak esan duenez, ez du ikusi «torturaren kanpoko aztarna objektiborik».

Autoaren aurrean Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) ohar batean jakinarazi duenez, «beste behin ere espainiar Entzutegi Nazionalak torturaren existentzian duen ardura mahai gainean jarri du auto honek». Tortura salaketan aurrean Entzutegi Nazionalak «beti egin izan duena errepikatu du» kasu honetan ere, «tortura kasuak ukatuz, ezkutatu eta gezurtzat jotz». Jarrera horrek «tortura kasu berriei bidea ireki baino ez die egiten, torturazailerai eta torturaren arduradun politikoei tortura ez dela zigortua erakus-

ten dielako», gaineratu dute AAM-tik.

E Erantzunak info

■ «Azkarate eta bere ertzainek jarri dezatela bideoa Villabonako plazan, ez daukate eta gezurretan ari dira Bildarratzen kolegak».

■ **Peru.** Hemen sinesgarria ez den bakarra Espainiako botere judiziala da. Manexek salatutakoa ez bada egia, zergatik gorde bideoaren kopiak? Bideoak gezurra esan zuela frogatzen badu, zergatik ez dute publiko egin nahi? Galdera hauen erantzuna oso argia da: Manex torturatu egin zuten».

Egibar eta Algeciraseko beste euskal presoak gose greban

Presoak » Herenegun hasi ziren protestarekin, «presoetako batek jasan duen azken erasoaren ondoren», dio AAMk.

ERRREDAKZIOA

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) azaldu duenez, Mikel Egibar zizurkildarrak eta Algeciraseko (Espainia) espetxean dauden beste euskal presoak gose greba hasi zuten herenegun. Presoen eskubideen aldeko mugimenduak dioenez, herenegun «espetxezainak Elorrioko Arkaitz Bellonen zie-

gan sartu eta hankaz gora utzi zuten presoak iraintzen eta mehatxatzen zuten bitartean» eta egoera hori salatzeko hasi dute protesta.

AAMtik gogorarazten dute euskal presoek behin baino gehiagotan salatu dutela presondegiok espetxezainek izaten duten jarrera. «Algeciraseko espetxean presoak jipoitzen ibiltzen dira espetxezainak eta orain dela urtebete Arkaitz Bellon Elorrioko euskal preso politikoa jipoitu zuten», zehaztu dute. AAMk gogor salatu du egoera hori eta elkartasuna eta babesa helarazi die.

Preso politikoen aurkako jazarpena «egunerokoa» dela dio

AAMk. «Eskubiderik gabeko sujetoak dira, eta beraien aurkako neurri, eraso, lekualdatze, jipoi eta eskubide urraketa guztiak espetxe politikaren arduradunen aldetik baimenduak eta bultzatuak dira». AAMk dei egiten du euskal preso politikoen eskubideen aldeko lanari lotu eta mobilizazio eta ekimenetan parte hartzeko.

Sinadura bilketa Amezketan

Presoen eskubideen aldeko sinadura bilketa egiten ari dira aste honetan eta hurrengoan, astegunetan, Amezketan. Udaletxean ari dira jasotzen sinadurak, 08:00etatik 15:00etara.

Zizurkilgo ikasleen antzerki emanaldiak gaurkoan Kultur Etxean

ERRREDAKZIOA

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eta San Millan eskoletako ikasleek antzerki emanaldia egingo dute gaur *Antzokian gaude* antzerki jardunaldien baitan. 11:00etan hasiko da emanaldia eta Atxulondo kultur etxean izango da.

San Millan eskolakoek hemeretzi esketek egingo dituzte *Olerki eta pasarte dramatizatuak* izenburupean. Pedro Mari Otañoek ere esketak egingo dituzte eta horrez gain, *Saturnino eta eguzki sistema* eta *Diruak sendatu du antzezlanak* emango dituzte.

Mendizabalen eta Furundarenaren kontzertua Gurean

ERRREDAKZIOA

Garikoitz Mendizabal txistulariak eta Aitor Furundarena akordeoioleak *Txistua eta akordeoia* kontzertua emango dute, gaur, 18:30ean Villabonako Gurea aretoan. Kutxaren Gizarte Ekintzen eskutik antolatutako kontzertua izango da eta sarrera doan izango da.

Bederatzi pieza joko dituzte saioan: *Belatsarena* (Jose Inazio Ansorena), *Aria* (Juan Sebastian Bach), *Horbel dantza* eta *Urepele* (Jose Inazio Ansorena), *Fandango boleroa* (trazionala eta Tomas Garbizuk eta Furundarenak berak

moldatutakoa), *La muerte del angel* (Astor Piazzola), *Scottish suite* (Norman Fulton), *Migerlea* (Sabin Bikandi), *Jota* (herrikoia) eta *Porrusalda* (herrikoia).

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume euskalduna eskaintzen da, auxiliar titulu-duna, gaixok zaintzeko batez ere gauez. Harremanetarako: 609 15 85 19.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: S5-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Villabona.** Garikoitz Mendizabal txistularia eta Aitor Furundarena soinu-jolearen kontzertua, Gurea aretoan 18:30ean.

Antzerkia

■ **Zizurkil.** Pedro Mari Otaño eta San Millan ikastetxeetako haurren emanaldiak Atxulondo kultur etxean 11:00etatik aurrera.

Hitzaldiak

■ **Berastegi.** Zaintza palioatiboei buruzko hitzaldiak erretore etxeko aretoan, 15:00etatik 17:00etara, herritar guztiei zuzenduta, baina bereziki heldu edo ezinduen zain-tzaile direnentzat.

Kirola

■ **Berastegi.** Basurde Kirok Elkarteak XVII. ibilaldi neurtua antolatuta du maiatzaren 3rako, Urepel, Mandoegi, Abadegurutze, Ipuliño, San Lorentzo igoz, plazatik 7etan abiatuz. 6,5-8 ordu. Izen-ematea abiapuntuan edo Zelai tabernara deituz (690 140951). 5 euro.

■ **Tolosa.** Maiatzaren 9an, 17:00tan, Javier Urkolaren ome-nezko VIII. Herri Duatloia izango da. Izena Shanti Kirok denda eman daiteke. Informazio gehiago tolosaldekott@gmail.com helbidean. Antolatzailea: Tolosaldeko Triatloi Taldea.

■ **Tolosa.** Eskaladan hastapen ikastaroa helduentzat Usabal kiroldegiko rokodromoan astearte eta ostegunetan 09:30etik 11:00etara edo 19:30etik 21:00etara.

Deialdiak

■ **Ikaztegieta.** Patinaje ikastaroa. Bost larunbatetan zehar, 10:00etatik 11:00etara, maiatzaren 9an hasita; izena emateko azken eguna hilaren 30ean, udal-etxean 09:00etatik 15:00etara, 5 euro ordainduz.

■ **Tolosa.** Ereitek ipuin tailerra antolatuta du bere egoitzan (San Esteban, 20) asteazkenetan, 3 hilabetez (15 euro). Izen-ematea, 685 750561 zenbakian edo multiculturalereite@yahoo.es helbidean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.


Galizia, Korsika eta Senegal



GALIZIA ● O Groven (Rias Baixas, Galizia) izan da Aste Santuan Hector Luna: «Goiz polit batean, mariskadoreak lanean ikusten dira, gerriraino ura dutela». HECTORLUNA (TOLOSA)



SENEGAL ● Senegalen egin duen oporraldian ateratako argazki hauxe bidali digu Aminata: «Opor hauetan, Senegalera nire familia bisitatzera joan naiz. Egun gutxi izan dira, baina oso ondo pasatu dut. Hemen garbigailurik ez dago, eta ni ere saiatu naiz etxeko lanetan laguntzen!». AMINATA THIAW (VILLABONA)



KORSIKA ● Korsikan izan da Jon Garmendia Aste Santuko opor egunetan. Hauxe kontatu digu bidali digun argazkiaren inguruan: «Harrigarria benetan! Korsikan barrena, bide ertz guztietako langak basurde larraz josita ikusi genituen, argazkian ageri den moduan». JON GARMENDIA (IBARRA)

A Agurrak



Zorionak!
Ekain Goikoetxea Alonso (Tolosa). Gaur 5 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

berria

Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak
hautatzeko probarako deialdia

PROBAKO EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

Eguna: maiatzaren 5a.
Tokia: Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkea.
Ordua: arratsaldeko laurretan.

BIZKAIAN

Eguna: maiatzaren 5a.
Tokia: Lelioako campuseko eraikin nagusian, 1. gelan.
Ordua: eguerdiko ordu batean.

ARABAN

Eguna: maiatzaren 6a.
Tokia: BERRIaren Gasteizko egoitza, Bizenta Mogel 6, behe.
Ordua: goizeko bederatzietan eta erdietan.

NAFARROAN

Eguna: maiatzaren 5a.
Tokia: BERRIaren Iruñeko egoitza, Iratxeko monasterioa 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerre.
Ordua: goizeko hamarretan.

Probara curriculuma eraman behar da